

telebista ♦ irratia

Ander Txintxurreta: «Kirolari amateurrek miresten ditut»

Hernaniko kazetariak ETB1eko Gaur egun albistegiko kirol atala aurkezten du

Erredakzioa / Donostia

Ander Txintxurreta hernaniarrak hilabete gutxi daramatza ETB1eko Gaur egun albistegiko kirol atala aurkezten; alabaina, ez da berria Euskal Telebistan, lehenagotik ere bertan aritua baita. Ander kazetaritza munduan, eta batik bat kirol alorrean, eskarmentu handiko gaztea dugu, eta Egin Irratian, ETB-n, EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta Euskadi Irratian jardun da. Berak aitortu duenez, kirolari amateurrenganako «miresmena» sentitzen du.



Ander Txintxurreta hernaniarrak eskarmentu handia du kirolean

IBILBIDE luzea eta oparoa egin du Ander Txintxurretak kazetaritza munduan. Hainbat mediotatik igaro ondoren, duela hilabete gutxi eginiko oposizioetan ETBko kirol arlorako lehenbiziko postua eskuratu zuen, eta ordudunik ETB1eko Gaur egun albistegiko kirol saila bere gidaritzapean darama. ETBn lehenago aritu bazen ere —bekario gisa— kameraren aitzinean orain dela gutxi hasi zen.

Bilbon jaioa, laster jo zuen familiarekin Hernanira (Gipuzkoa), eta kazetaritza ikasketak egin zituen Leioako kanpusean (Bizkaia). Ikasle zela, kirol kazetaritzarekin aurreneko pausoak eman zituen Garzon epaile-

ak itxitako Egin Irratian. ETBn ere jardun zuen, bekario.

Hurrena, EEBBetara jo zuen, eta Minesottako Unibertsitatean Ikusentzunezko arloko master bat egin zuen. Itzuleran, Egin Irratian berriz lan egin ostean Kontseiluko lan taldean ibili zen, Bai Euskarari kanpainaren karira. EUSKALDUNON EGUNKARIAN Komunikazio alorrean zenbait hilabetez aritu ondotik, bost hilabetez jardun zuen Euskadi Irratian, magazine bat aurkezten, eta kirol arloan lan egiten. Egun, ETBko Gaur egun albistegietan egiten du behar, kirol aktualitatea aurkezten.

Kirolak ttikitatik izan ditu gustuko

Anderrek betidanik izan ditu gustuko kirolak. Berak adierazi duenez, «ikasle garaian hasi nintzen pentsatzen neure etorkizun profesionala arlo honi lotzea. Hala ere, gauza gehiago egin ditut, eta kontent nago, esperientzia aberasgarria dela uste dut». Kirolak gustuko izan arren, eta egun alor horretan jarduten badu ere, «beste esparruetan aritzea ez dut baztertzen», dio.

Ander Txintxurreta, prentsa idatzian baino, irratian zein telebistan dabil gusturago. «Irratia hobeki ezagutzen dut, izugarri gustatzen

zait, baina kameraren aurrean ere eroso sentitzen naiz», azaldu du.

Hasieran «arraro samar» ikusten zuen bere burua telebistako pantailan, baina beraren ahotan «hasierako beldurak eta ezustek aiantzi ditut dagoeneko».

Gustukoen dituen kirolen artean «futbola eta txirrindularitza» daudela aipatu du, lehen futbolearen eta bizikletan ibiltzen zela gaineratuz.

Anderren ustez, «kirolariak ez dira mirestu behar; kirolari bat ahalmen bereziak dituelako nabarmentzen da, eta gizarte honek horiek etengabe mirestu arren, ez dute horren beharrik. Dena den, kirola arlo arrunt zabalaz izaki, badira diru gutxirekin eta eginahal handiarekin tartetxo bat egitea lortu duten jarduerak; kirolari amateurrez ari naiz, hala nola arraunlariez edota sokatiran nahiz triatloian diharduten kirolariei buruz. Horiek guztiek nire miresmena merezi dute».

ETBko aurkezlearen iduriko, futbolak jaun eta jabe izaten jarraitzen du, nahiz eta duela urte batzuek saskibaloia eta eskubaloia dezente sendotu ziren. «Futbolaren nagusitasuna ez da ona Euskal Herrian jokatzeko diren beste kirolentzat, baina txirrindularitzak eta pilotak erronkari ondo eutsi diotela uste dut».

Gauzak oso argi dituela erakutsi du Anderrek.

laburrean

Areto dantzen lehiaketako finala

Gaur, 21:15etik aurrera, Euskal Telebistako lehenengo kateak areto dantzen lehiaketako finala emango du, Dantzaki 2000 saioaren barruan. Maiatzean bi finalerdiak ikusteko aukera izan zen eta han parte hartu zuten 19 bikoteetatik hamarrek lortu dute finaleira iristea. Sailkatu diren bikoteek bi koreografia dantzatu beharko dituzte, bata eurek aukeratua eta bigarrena ETBk derrigorrez ezarritakoa.

Nazien sarraskia, 'Documentos TV' saioan

Pedro Erquiciak zuzentzen eta aurkezten duen Documentos TV saioak naziei buruzko erreportaia eman go du gaur 19:45etik aurrera, La-2en. Benjamin Wilkomirskiren ikuspuntutik abiatuko da 55 minutuko iraupena duen dokumentala. Wilkomirskik bere burua judu moduan aurkezten du eta, berak idatzitako liburuan, kontzentrazio eremu batean egon zenekoak kontatzen ditu. Hala ere, zenbaiten ustez Wilkomirski Suitzan jaioa da eta, beraz, ez zen sekula kontzentrazio eremu batean egon. Bertsio ezberdinak parekatzeko aukera izango dute ikusleek.

Psikologia mintzagai 'Redes' saioan

Ezagutza zientifikoa zabalteko helburua duen Redes saioa psikologian murgilduko da gaur. Besteak beste, Antonio Dalmasio elkarriketatuko dute. Dalmasio, Iowako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Neurologia ataleko zuzendaria da.

Atzerapen mentalari buruzko ikerketa

Down sindromea eta gero, X kromosoma ahula izateak eragiten du atzerapen kasu gehien. Herentziaz jasotzen den gaixotasun hori gertutik ezagutzeko aukera emango dute La-2eko Redes saioko irudiek.

Israelgo judu ortodoxoen biolentzia aztergai

ETBko 'Mundo.Hoy' saioak euren ohitura eta jokaerei buruzko dokumentala emango du

Erredakzioa / Donostia

ISRAELGO judu ortodoxoen inguruko hausnarketa egingo dute gaurko erreportaiaren. Mirentxu Purroy kazetariak zuzentzen eta aurkezten duen Mundo.Hoy saioak talde erlijioso horren indarkeria

erakutsiko du. Larunbata egun sakratua da juduentzat eta halako egunetan lan egiten dutenen kontra indarkeria erabiltzen dute hainbatek: tabernak, dendak eta bestelakoak apurtzen dituzte. ETB-2an ikusgai, 13:30etik aurrera.



Ortodoxo eskuindarrek euren erlijioa inposatu nahi dute Israelen.